

# Asisko gutuna

2017ko Martxoa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

101. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Maite diren pertsonak, gero eta antzekoago bihurtzen direla dio herri jakituriak. Beste horrenbeste gertatzen zaigu Jainkoarekiko harremanean: gero eta bere antzekoago eginez goazela, Jesusen asmo, sentipen eta irrikak geure eginez. Eta barru barrutik ateratzen zaigu Mariari bezala: “Hona hemen zure zerbitzaria. Egin nigan zure nahia”.

## Gogoetarako gaia

### *Minoritatea (txikien izatea)*

Minoritatea (txikien izatea) frantziskotar kutsuko hitza da. (Ez zaitezte bila joan (gaztelaniazko) hiztegiara, agertzen den esanahi bakarra adingabea baita). Asko darabilgun hitza da, baina horrek ez du esan nahi bere edukia asko praktikatzen dugunik. Gure artean esan nahi du azkenekoak izatea, eskubide eta pribilegiarik gabeak. Frantziskok nahi zuen, bere anaia eta arrebak besteen zerbitzuan jartzen diren pertsonak izatea, ama izaten dakitenak, zeren eta ama batek seme-alabak zerbitzatzeko eta maitatzen ditu bere buruaz ahazturik. Frantziskok ez zuen nahi, bere anaietako inor besteen gainetik sentitzea eta jartzea. Haien txikienak izatea nahi zuen. Gaur esango genuke “ezereztzat hartuak”.

Minoritatea, berarentzat, Jesusek berak gure artean egotean hartu zuen lekuan jartzea da. Frantzisko liluratuta gelditzen zen Jesusen pobreziaz, apaltasun eta txikitasunaz, Haren

zerbitzatu-gogoaz, Haren ez-indarkeriaz. Txikien izatea eta minoritatea bizitzea Jainkoaren lekuan jartzea da, Jesusen alboan jartzea. Eta leku horretatik minoritatea zera da: Jainkoak guri eta besteei begiratzen dien lekutik guk pertsonari begiratzea. Eta leku horretatik Jesusen berarekin esan ahal izatea: “Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu”.

Dagokigun lekua hartzea da minoritatea. Zentroa Jainkoa dela jakitea, ez gu. Ez dagokigula guri ohoreak hartzea eta ondo ikusiak izatea, baizik eta albora egitea Jainkoari pasatzen uzteko. Ez dagokigu, ezta ere, gure lanen ordaina hartzea, baizik eta dena ahal den ondoen egitea, jakinik “morroi probetxugabe” garelako. Jainkoagan uste osoa izatea da guri dagokiguna. Eta konfiantza horretatik gure eginak haren eskuetan uztea.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 18,1-5

Hurbildu ziren ikasleak Jesusengana eta galdetu zioten: “Nor da Jainkoaren erreinuan handiena?” Jesusek, haur bati dei egin eta haien aurrera ekarririk, esan zien: Benetan diotsuet: Berriro haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko Jainkoaren erreinuan. Beraz, haur hau bezain txiki bihurtzen dena, hori da Jainkoaren erreinuan handiena. Eta honelako haurra nire izenean onartzen duenak neu onartzen nau.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Bestalde, anaiek ez bezate izan botererik eta aginterik, eta are gutxiago beren artean. Izan ere, honela dio Jaunak Ebanjelioan: *Herrietako buruzagiek menpean hartzen dituzte herriok, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar anaien artean. Hauen artean handien izan nahi duena izan bedi guztion zerbitzari eta morroi; eta beraien artean nagusia egin bedi txikienaren pareko.* Eta anaia batek ez biezaio beste bati gaizki egin edo esan; baizik eta, espiritu-tuzko karitateaz, elkar zerbitza eta elkarri obedi biezaio borondatez.

Eta ez bedi inor priore deitu, baizik eta den-denak anaia txiki dei bitez. Eta oinak garbi biezazkiote elkarri. Anaiak, edozein lekutan daudela ere, besterenean zerbitzuan edo lanean ari direlarik, ez bitez izan etxezain, ez eskribau, ez zerbitzatzen duten etxeko buru, ... baizik eta txikienak izan bitez eta etxean diren guztien menpeko.

Egiaz ziren txikienak, guztien menpeko izanik, azken tokiak eta desohore kutsua zuten lanbideak bilatuz, horrela, egiazko apaltasunean oinarritzea lortzeko.

## Otoitza

Jesus Jauna,  
nolako lanak ematen dizkigun  
morroi, morroi gizajoak, garela jakiteak.  
Zenbat kostatzen zaigun onartzea  
ezer gutxi garela,  
etengabe bizi behar dugula  
zerbitzu-jarreran.

Nolako mina ematen digun  
besteak aurretik pasatzen uzteak,  
gure meritu eta lorpenak  
besteek beti ez aitortzeak,  
gure izena ez agertzeak...

Zenbat kostatzen zaigun zerbitzatzea  
zerbitzatuak izan gabe,  
zerbitzatzea mirabekeria dela  
azpi-azpian uste izan gabe,  
zerbitzatzea esklaboek egitekoa dela  
barru-barruan pentsatu gabe.

Jesus Jauna,  
soilik zerbitzatzen duenak balio du.

Soilik zerbitzatzen badugu gara baliagarri.  
Soilik besteei zerbitzu egitean  
gara benetan zure jarraitzaile.  
Soilik ausardia badugu  
geure burutik aldentzeko,  
burua jaisteko, gu geu erditik kentzeko,  
azkenengoei protagonista izaten uzteko...  
orduan egin behar genuena izango dugu.  
Jesus Jauna,  
Lagun iezaguzu ulertzen,  
justiziaren aldeko konpromisoa eta  
babesgabe eta pobretuei zerbitzu egitea  
ez dela soilik fededun garenaren ondorio bat.  
Ez, ez da soilik ondorio bat,  
fededun izatearen parte esentziala da.  
Zerbitzurik gabe gure fedea antzua da,  
gure Kredo ezerez nabarmena  
eta gure otoitza baloiak kanpora botatzea.  
Egin gaitzazu zerbitzari pobretxo.  
Egin gaitzazu andre eta gizon zerbitzari.  
Amen.

## Gutuneko azken hitzak

“Lehena izan nahi duena izan bedi azkena” Nazaretoko Jesus

### 2017ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Mt 6,1-6.16-18	8 Lk 11, 29-32	15 Mt 20, 17-28	22 Mt 5,17-19	29 Jn 5,17-30
2 Lk 9,22-25	9 Mt 7, 7-12	16 Lk 16, 19-31	23 Lk 11, 14-23	30 Jn 5, 31-47
3 Mt 9,14-15	10 Mt 5, 20-26	17 Mt 21, 33-43.45-46	24 Mk 12 28-34	31 Jn 7,1-2.10.25-30
4 Lk 5, 27-32	11 Mt 5, 43-48	18 Lk 15, 1-3.11-24a	25 Lk 1,26-38	
5 Mt 4,1-11	12 Mt 17, 1-9	19 Jn 4	26 Jn 9	
6 Mt 25,31-46	13 Lk 6,36-38	20 Mt 1,16.18-21.34a	27 Jn 4, 43-54	
7 Mt 6, 7-15	14 Mt 23-1-12	21 Mt 19,21-35	28 Jn 5,1-3,5-16	

Martxoko Otoitza hilaren 30ean izango da.